

## 1.1.2 GAIAREN LANKETA

### > Mundukoak gara



#### - Nongoa, non bizi

#### • Gogoratu

##### Helburuak

- Aurkezpenarekin zerikusia duten edukiak birpasatzea.
- Landutako edukiak orrialde bakar batean irudikatzea.

##### Prozedura

- Umeei fitxa bana banatu eta arretaz begiratzeko eskatu.
- Denen artean izan aditza gogoratu. Umeei galdetzen joan. Adibidez: ni? Eta umeek naiz erantzun beharko dute. Edo, Maria, zu? Mariak zara erantzun beharko du.
- Jarraian, denen artean Iratiren eta Beñaten aurkezpena irakurri.
- Hezitzaileak umei galderak egin:
  - Nor zara?
  - Zer zara? (lanbidea, neska, mutila...)
  - Nolako zara?
  - Zer izan nahi duzu handitan?
- Galderak norberaren ingurukoak edo ikaskide baten ingurukoak izan daitezke. Adibidez, nolako zara, Maria? Edo, Maria, nolako da Marcos?